

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Baietz 40 egun euskaraz!
ikerketa-ekintzaren emaitzak.

EGILEA:

Pello Jauregi Etxaniz

DATA:

2017/05/11



Aurkibidea

1. Aurrekariak.....	2
2. Uste teoriko nagusiak.....	2
3. Gauzaren praktikoa: Belarriprest eta Ahobizi.....	7
4. Erronkaren ezaugarriak.....	8
5. Ikerketaren diseinua.....	9
4. Emaidzak.....	10



1.- AURREKARIAK

“Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz!” Lasarte-Orian 2017ko urriaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, 40 egunez egin den herri-erronka izan da. Ttakun Kultura Elkarteak eta Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak antolatuta, Euskararen 9. Maratoiaren testuinguruan garatu da.

Euskararen Maratoia da Lasarte-Orian lau urtean behin egiten den ekintza erraldoia. 40 orduz etengabe euskarazko jardunak antolatzen dira herriko erakunde, elkarte eta herritarrek prestatutik eta zortzi laguneko talde batek gidaturik eta alaiturik.

9. ediziora iritsita Lasarte-Oriako euskalgintzako sektore zabalek beharra sumatu zuten Euskararen Maratoiaren balioak galdu gabe, aurrerapauso sakon bat emateko Egia auzoak berriki emandako ildoari jarraiki.

Lan munduan azken urteotan Soziolinguistika Klusterrak abiatu duen Eusle Metodologian oinarrituta, batetik, eta TELP tailerretan ere begia jarrita, bestetik, “Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz” kanpaina diseinatzeari ekin zitzaion maiatza aldean. Lehenengo unetik ekintza edo esku hartzeari ikerketaren alderdia ere erantsi zitzaion, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntzari esker. Hala, ikerketa-ekintza paradigmen barruan garatu dira hasieratik bertatik hala esku hartzea nola datuen bilketa bera ere.

Euskararen 9. Maratoiak etengabe zabaldu du “Irten armairutik!” herri-erronkaren mezua eta izena emateko kanpaina hartaz baliatu da neurri handi batean. Eta Maratoiaren bukaera bera izan zen herri-erronkaren abiapuntua. “Irten armairutik!” herri erronkaren protagonista nagusiak herritarrak beraiek izan dira. 957 pertsonak eman zuten izena *Ahobizi* izateko, eta 1.297 pertsonak *Belarriprest* izateko.

2. USTE TEORIKO NAGUSIAK

2.1. Erabilera: ardatza eta bultzagilea hasieratik bertatik

Erabilera iristeko erabileratik bertatik abiatu behar da, hasiera-hasieratik abiatu ere. Planteamendu zirkularra da, edo hobe esanda, espirala. Erabilera erabileratik bertatik elikatzen da. Erabilera arrakastatsu batek erabilerari berari

eusteko berezko motibazioa sorrarazten du. Erabilera arrakastatsu batek, denboran zehar iraunez gero, kideak gaitzen ditu hizkuntza trebeki erabiltzeko.

Erabilera helburu duen esku hartze batek erabilera bera jarri behar du esku hartzearen abiapuntuan bertan. Halako batek lehendabizi behar du hizkuntza portaera jakin batzuk zehaztu, eta haien arabera jokatzeko prest diren pertsonak aurkitu (gure kasuan, protagonisten borondate eta nahian oinarrituta). Hizkuntza portaera horiek gauzatzerakoan abiatzen da esku hartzea, eta ez lehenago.



2.2. Talde urratzaile baten eta talde babesle baten beharra

Hizkuntza erabilera ez da inoiz kontu indibiduala. Hizkuntza solasa da, eta solasak bi solaskide behar ditu, gutxienez bi. Hizkuntza jokaera gogoan dugunean, bikotea dugu unitaterik txikiena. Eta bikotetik aurrera, hirukoteak, laukoteak, enekoteak... Hizkuntza erabilerak komunikazioak berak bezala bi alderdi ditu: mintzatzen den alderdi bat eta entzuten-ulertzen duen beste bat, ahozko komunikazioaz ari bagara.

Hizkuntza komunikazioari dagokionez, hautua egin dugu kide bat euskaraz mintzatzeko gai den eta beste kide bat euskaraz gutxienez ulertzeko gai den bikotearen alde. Hauxe izango litzateke gure bikote eredu axiomatikoaren. Hauxe ere gure esku hartzearen jomuga. Bi kideak euskaraz mintzatzeko gai direnean, halako bikoteak gure bikote axiomatikoaren kasu berezia baino ez dira. Baina kategoria horretan ere bete-bete sartzeko dira halako bikoteak non kide bat euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko gai den bitartean, beste kideak ulertu baizik ez baitu egiten, eta hortaz ez da mintzatzeko gai.

Oso usu dira erdarazko jokaerak halako bikote axiomatikoetan, bereziki bikote asimetrikoetan (non kideetako batek ez du aski gaitasunik euskaraz aritzeko, ulertu arren), baina baita bikote simetrikoetan ere (non bi kideek duten euskaraz jarduteko gaitasuna). Harreman horiek finkoak direnean hizkuntza ohituraz hitz egiten dugu. Gure egoera soziolinguistikoan erdarazko hizkuntza ohitura dugu nagusi gure bikote axiomatiko gehientsuenetan, bereziki bikote asimetrikoetan.

Erdarazko jokaera ohikoa den harreman batean euskaraz aritzea ohitura-arau-lege implizitu baten haustura eta urradura da. Zerbait arrotza, deserosoa eta nekagarria. Hala ere, urradura hori egin gabe ez dago hizkuntza ohiturarik aldatzerik. Urradura batek zartatu egiten du eremu sozial baten egonkortasuna, eta, ezinbestez, gainerako kideek ere nozituko dituzte urradura haren zartakoak. Jokaera urratzaile baten eragina jasaten duten kideek, edo erresistentziaz erreakziona dezakete, urratu aurreko egoerara lehenbailehen itzultzeko, edo, aitzitik, ontzat har dezakete jokaera urratzaile berria, hartara egokituz modu zabalean. Kasu bat izan ala bestea izan ez da bera izango taldekideentzat kostu energetikoa.

Erabilera ardatz dugunean eta hizkuntza portaeraren taldetasuna gogoan hartuta gabiltzanean, orduan komeni zaigu esku hartzearen arreta bi multzotara zuzentzea aldi berean. Alde batetik, hizkuntza jokaera urratzailea izango duen multzo bat aurkitu, antolatu eta aktibatzerara jo beharko genuke. Multzo horrek funtsean euskaraz jardungo du aurretik erdaraz jokatzeko ohitura zuen eremu batean: hartan datza urradura. Baina bestetik jokaera urratzaile hori ontzat hartuko duen multzo harkor eta zabala lotu, antolatu eta abiatu beharko genuke. Bi multzo-talde hauen

osagarritasunetik etor liteke erdarazko ohitura bertan behera utzi eta euskarazko ohitura eraikitzen hasteko gatazkarik gabeko edota energia ezkor gutxiko prozesuak abiatzea.

Ez ditugu indar urratzailea erakutsiko duten kideak soilik bilatu nahi. Haiekin batera bilatu nahi ditugu talde, multzo edo pertsona babesleak, berez deseroso den jardura urratzailea aiseago eta arinago izan dadin. Talde babesle batek eramangarriago egiten du talde urratzaile baten jarduna. Talde babesle batek zilegitasun soziala ematen dio halako jokaera bati, jokaera berria eta urratzaile izanagatik ere.



2.3. Ulermenaren balio askatzailea

Euskarazko komunikazioa zeharo ezeztatzen da solaskideetako batek euskaraz ulertzen ez duenean. Euskaraz jarduteko aukera, ordea, zabaldu egiten da solaskide guztiek ulertzen dutenean. Ulertzeko gaitasunak, orduan, euskarazko komunikazioaren atea zabaltzeko giltza du berekin. Ulermena giltza izateak ez du esan nahi, ordea, ezinbestean atea zabalduko denik, (giltza batek ez du inoiz berez ezer irekitzen, ez bada norbaitek giltza hori erabili duela) baina ulermenaren giltzarik gabe, atea ezin ireki. Ulermenak ematen du komunikazioaren aukera, ez komunikazioa bera.

Bi kideetako batek euskaraz ulertu ezean, ez da euskarazko komunikazioaren korapiloa askatzen.

2.4. Mintzamenaren balio gauzatzailea

Euskaraz ulertzeko kideen gaitasunak komunikazioaren aukera agerian uzten duela esan dugu. Ordea, aukera horren gauzapena gertatzen, gorpuzten eta gauzatzen da gutxienez kideetako batek euskaraz hitz egiten duenean. Mintzamina da, orduan, giltza darabilen eskua komunikazioaren atea zabaltzeko.

Bi kideetako batek euskaraz jardun ezean, ez da euskarazko komunikazioa gauzatzen eta ez ematen.

2.5. Elkarrizketa asimetricoen balio eraldatzailea

Komunikazioaren gutxieneoak ematen direnean, hots, kide batek gutxienez ulertu eta besteak gutxienez hitz egiten duenean, sikiera elkarrizketa asimetricoak gertatzeko aukera zabaltzen da. Elkarrizketa asimetricoetan kide bakoitzak hizkuntza bana darabil: elebitako jardunak dira. Halako elkarrizketak egingarriak dira baldin eta kideetako bakoitzak elkarren hizkuntzak ulertzen baditu, ez bestela.

Oso egoera ezegonkorak dira elkarrizketa asimetricoak, halakoek sorrarazten duten disonantzia (atsekabetasuna, deserosotasuna, tentsioa...) ez baita sekulan guztiz desagertzen. Simetriarako berezko joeraren aurka etengabe egitea eskatzen du elebitako elkarrizketa asimetricoetan aritzeak. Beraz, arreta handia eta kontzientzia lan eskerga eskatzen du halako jardun batek.

Harreman asimetricoek auzitan jartzen dute hizkuntza ohitura baten egonkortasuna eta bide ematen dute bestelako hizkuntza ohitura bat eraiki dadin. Izaera eraldatzailea izan ohi dute harreman asimetricoek, egoera baten egonkortasuna atzean utzita bestelako egoera egonkor batera pasatzeko bidea jorratzen dute.



2.6. Ohiko harremanetan hizkuntza ohituren iraultzea da jardun soziolinguistikoaren gakoa

Gure egunerokotasuna nagusiki ematen da harreman eremu finkoetan non hizkuntza jokaera ongi zehaztuta eta finkatuta ageri ohi den. Halako harreman finkoetan komunikazio beharrak asetzeko erabili ohi ditugun bide adostu eta koordinatuak (eta gehienetan oharkabeak) dira hizkuntza ohiturak.

Ohiko harremanetan jakin ohi dugu gure solaskideen hizkuntza ezaugarriaren berri. Berdin da jakintza hori egiarekin bat datorren ala ez. Egiatzat hartzen den uste batek osoki funtzionatzen baitu errealtateari eusteko garaian. Hala, esaterako, nik pentsa dezaket nire lagun batek ez duela euskaraz ulertzen, eta uste hori gezurra izan arren, egiatzat badaukat haren inguruan antolatuko dut nire hizkuntza jokaera. Besteen hizkuntza gaitasunez dugun usteetan oinarriturik (egia ala gezurra izatea ez da funtsezkoa) murgiltzen gara elkarrizketan eta elkarrekintzan, eta beti saiatuko gara biderik erosoena bilatzen elkarri egokitzeko. Behin bide horiek topatuz gero, aurrerantzean erraz jariatzen da jokaera bertara ura arrastora bezala. Elkarrekintzan funtzionatu duten bideak orduan behin, bitan, hirutan, askotan eta etengabean zeharkatzen ditugu. Etengabeko ibiltze eta jardute horrek gero eta markatuagoa egiten du bidearen arrastoa. Zaila izaten da gero arrasto horretatik ateratzea, zeren grabitatearen gisa inertzia psikologiko eta soziologiko guztiek hartara jotzen baitituzte.

Beraz, gure harreman gehienak honezkero finkatuak daude, eta behin eta berriz funtzionatzen dute hizkuntza arauaren beraren eraginpean. Hurrez besteko adin tartetan ohiko bide horiek iraultzea da jardun soziolinguistikoaren gako nagusienetako bat. Hizkuntza gutxitu baten nagusitzeak ezinbestean topo egiten du hizkuntza ohiturak irauli beharrekin, eta hori gertatu, ororen gainetik gure ohiko harreman finkatuetan eta gertuko harreman sare naturaletan gertatzen da.

2.7. Harreman berrietan euskara defektuzko hizkuntza izatea da leinuen arteko hariak josteko bidea

Gizarte baten oinarrian gertuko harreman sareak, edo leinuak aurkitzen diren bezala, gizarte koherentzia osatzeko ere funtsezkoa da leinuen arteko zubiak eraikitzea eta hariak ehuntzea. Hizkuntza bera da zeregin horretarako bitarteko garrantzitsuenetarikoa. Ordea, nola jokatu dugu beste leinu bateko kideekin, guretzat arrotza den batekin, hari buruzko hizkuntza informaziorik ez badugu? Nola jakingo dugu harekin euskaraz ala erdaraz aritu behar dugun? Halako zalantzak ditugula, azkenean defektuz edo badaezpada ere arrotzekin komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza egitez hizkuntza nagusia dela eremu horretan adierazten ari gara. Bera dela gizarte kohesiorako tresna eta bidea. Horregatik, arrotz eta ezezagunetik harremanetan lehen hitza euskaraz egiteak auzitan jartzen du gainerako hizkuntzen nagusitasuna, eta beretzat aldarrikatzen du gizarte-kohesioa eskuratzeko zeregina.



Lehen hitza euskaraz egitea jokaera urratzailea da arrotzen arteko hizkuntza harremanak gogoan hartzen ditugunean. Honek euskarari kohesio-balioa emateaz gain, berekin ere badakar harreman berriak euskararen gainean eraikitzeko aukerak ugaltzea. Eta hala euskarazko bidea har dezakete lehen unetik, bestela erdaraz gauzatuko liratekeen harreman asko eta asko. Kontu egin ezen harreman sistema batean lehen bidea egiten duen hizkuntzak esponentzialki areagotzen dituela aurrerantzean sistemaren hautu nagusia izateko aukerak, zeren lehen eraginak izaten baitira sistema bat bereziki konfiguratu ohi dutenak.

2.8. Gazte-helduak dira gizartearen sektore nagusiak

Haurren sozializazioak hein handi batean helduen munduan murgiltzea izan ohi du helburu. Nolabait, helduen mundutik diseinatzen da hezkuntza sistema, helduen mundutik zabaltzen dira haurrengana balioak, jokaerak eta ezagutzak. Haurrak beraiek ere jakitun dira horrekin. Nagusien munduari begira daude etengabe, nagusien jokaerak eta jarrerak hartzeko prestutasun ikaragarria erakusten dute. Nagusi horiek bezalakoak izan nahi dute, haien munduaren parte sentitu nahi dute.

Nekez pentsa daiteke hurrek barnera ditzaketela helduek guztiz arrotz dituzten jokaerak. Nekez bizi daitezke euskaraz helduen mundua eta jokaera erdara hutsezko dela uneoro ikusten duten haurrak. Oso alde handia dago haurrentzat eraiki nahi dugun mundu euskaldunaren eta helduek bizi duten mundu erdaldunaren artean. Hain da distantzia ikaragarria, kontraesana ezin baita erraz ezkutatu. Desoreka gordinaren aurrean, helduen mundu ahaltsuak azpiratzen eta zapuzten du haurren mundu ahula.

Ahalegin ikaragarriak egin dira haurren mundua euskalduntzeko. Alabaina, ez dira neurri eta bizitasun berekoak izan helduen artean egindakoak. Bi mundu hauen arteko egungo leize sakona orekatzera jo beharra nabarmena da. Hala, agian, bideragarriagoa izan liteke eremu bakoitzaren sinergiak bat egitea elkar elikatuzko.

Helduen nagusitasun sozialak isla izan beharko luke euskalduntzearen mugimenduan ere, eta hortaz, hari, helduen munduari hain zuzen, badagokio hizkuntza jokaera kontuetan ere eredu eta aitzindari izatea, zama eta ardura haurren bizkar gainean guztiz utzi gabe.

3. GAUZAPEN PRAKTIKOA: BELARRIPREST ETA

AHOBIZI

Aurreko printzipio guztiak gorpuztu genituen bi protagonistetan eta haietako bakoitzari emandako egitekoetan. Printzipio horiek dira, besteak beste, ikuspegi kolektiboa, zeregin osagarriak, ulermenaren garrantzia, euskarazko jardunaren garrantzia, harreman asimetrikoen zehaztapena, gertuko harremanetan hizkuntza ohituraren aldaketaren beharra, eta harreman berrietan euskarazko defektuzko jokaera.



Orduan, esku hartze soziolinguistikoa diseinatu genuen hizkuntza jokaera erdigunean hartuta eta bi jokaleren arteko elkarrizketa baten gisa. Bi jokale hauek izango ziren, *Ahobiziak* batetik eta *Belarriprestak* bestetik.

Ahobizi gisa jardungo zuten herritarrek talde urratzailea osatuko zuten. Beren zeregina izango zen euskaraz egitea euskaraz ulertzen zuen jende guztiarekin, ezaguna izan ala ezezaguna izan. Ezagunekin euskaraz egiterakoan, hainbat kasutan euskaraz aritzeko ohitura are gehiago finkatuko zuten, baina kasu askotan ere euskarazko jardunean murgiltzeko erdaraz egiteko ohiturari bizkarra eman beharko zioten. Bestalde, arrotzekin ere “lehen hitza euskaraz” eginda, zeregin handia beteko zuten, euskarari kohesiorako balio soziala emanez.

Hona hemen nola formulatu genuen *Ahobizien* egitekoa:

“Batetik, ingurunean (etxean, lagunartean, lantokian...) dituzun EZAGUNEKIN euskaraz egingo duzu, baldin eta euskara ulertzen badute. Horren barne sartzen dira nola eta hala ulertzen dutenak ere. Ezagun horiekin BETI eta ERABAT egingo duzu euskaraz zazpi egun horietan, nahiz eta beraiek zuri erdaraz erantzun.

Bestetik, EZEZAGUNEKIN hitz egiterakoan, zuk LEHEN HITZA EUSKARAZ egingo duzu, eta euskara ulertzen duela antzematen baduzu, euskaraz jarraituko duzu. Berdin da berak zuri erdaraz erantzutea.”

Belarriprest gisa jardungo zuten multzoa genuen bestetik. Talde honen ezaugarri nagusia izango zen gaitasunaren ikuspegitik euskaraz ulertzeko gauza izatea, eta jarreraren aldetik, ontzat hartzea jendeak haiei euskaraz egitea. Talde honen ezaugarri komuna ez zen izango euskaraz hitz egitea. Are gehiago, talde honetako askok eta askok, euskaraz ulertu arren, zailtasun agerikoak izan litzakete euskaraz mintzatzeko. Hala eta guztiz ere, erdaraz erantzutearen ondorioz *Ahobiziek* ere erdarara iraganez gero, orduan haiek *Ahobiziei* euskaraz jarraitzeko gonbita egiteko aholkua zabaldu genien, euskaraz ulertzen zutenez gero.

Belarriprestek Ahobizien jarduna errazten zuten nolabait, haien euskarazko jarduna zilegi eta onargarri bihurtzen zuten neurrian. Ez da ahaztu behar zilegitasuna eraikuntza kolektiboa dela. Langintza horretan alderdi bakoitzak badu zeregina, eta nork berari dagokiona eginda osatzen da emaitza.

Hona hemen, nola formulatu genuen *Belarripresten* egitekoa:

“*Belarriprest* izateko, EUSKARAZ ULERTU behar duzu ezinbestean.

Belarriprest izanda, zure jarrera positiboa erakusten duzu: “*bai, ONGI HARTZEN dut norbaitek niri euskaraz egitea*”

Belarriprest izanda, GONBITA egiten diozu euskaraz dakienari zuri euskaraz egiteko: “*Euskara ulertzen dut. Egidazu lasai euskaraz!*”

Belarriprest izanda, LAGUNDU egiten duzu euskaraz egin nahi duena armairutik ateratzen.”



Kanpainaren sinbologiari erreparatuta esan genezake “Armairutik irtetea” zela euskarazko jokaerari sendotasunez eustea. Sendotasun horrek eskatuko zuen kasu askotan erdarazko hizkuntza ohiturak iraultzea. Jokaera tankera horri eutsita, esan genezake *Ahobiziak* irten egiten zirela armairutik. Irteera hori gozatuko zutenak, ordea, *Belarriprestak* izango ziren, euren aldeko jarrerarekin ongi etorria eta beso zabalik hartzen baitzuten *Ahobizien* hizkuntza jarduna. *Belarriprestena* ere bazen *Ahobizientzako* gonbita armairutik irten zitezen.

4. ERRONKAREN EZAUGARRIAK

“Irtten armairutik” kanpaina herri-erronka gisa planteatu zen. Hain zuzen, herriko euskalgintzako erakundeek Lasarte-Oriako herritarrei botako erronka gisa: “Baietz 300 *Ahobizi*! Baietz 3.000 *Belarriprest*!”

Ahobizi edo *Belarriprest* izateko, hizkuntza jokaera konpromiso zehatz batzuk hartu behar zituzten herritarrek. Konpromiso horien adierazle gisa herritarrek izena eman behar zuten. Kanpainan parte hartzeak berekin zekarren *Ahobizi* edo *Belarriprest* konpromisoa hartzea.

Ahobizien konpromisoa astebeterako zen, eta *Belarriprestena* sei asteetarako.

Euskararen 9. Maratoia bukatzean, *Ahobizien* lehen txandari abiapuntua eman zitzaion. Astea burutzean, *Ahobizi* txanda berriak lekukoa hartu zion aurrekoari. Eta horrela astez aste sei txanda bete arte. Azken txanda Euskararen Egunarekin amaitu zen, abenduaren 3an.

Ordea, *Belarriprestek* sei astez eutsi zioten beren egitekoari, erronka osoak iraun zuen tartean alegia.

Bai *Ahobiziek* bai *Belarriprestek* identifikazio txapa bana eraman behar izan zuten soinean, norberaren egitekoaren erakusle. *Ahobiziek* astebetetz eraman zuten, nork bere txandan, eta *Belarriprestek* sei astez, erronka hasi eta amaitu bitartean.

Ahobizi edo *Belarriprest* gisa parte hartzeko, bi baldintza eskatu ziren: 16 urtez gorakoa izatea eta Lasarte-Orian jaiotako edo bizi izatea.

Ostiral arratsaldeak erabili ziren *Ahobizien* txanda aldaketa egiteko. Bi orduko bilkurak izan ziren. Espazio batean *Ahobizi* zaharrak biltzen ziren hainbat dinamizatzailearen gidaritzapean. Galdetegi bat betetzen zuten, astean zeharreko hizkuntza jokaera ezagutzeko eta koaderno bat betetzen zuten beren sententziak eta esperientziak idazteko. Beste espazio batean *Ahobizi* berriak elkartu egiten ziren, hauek ere dinamitzaileen gidaritzapean. Hizkuntza jokaerari buruzko datuak betetzen zituzten eta ondoren gogoratzen zitzaizkien *Ahobizien* konpromisoak. Bukatzeko, zaharrak eta berriak, berriak eta zaharrak elkartzen ziren espazio bakarrean ekitaldi laburra egiteko. Bertan hainbat pertsona kontatzen zituen bere esperientziak edo espektatibak. Bukatzeko, ekintza sinbolikoan, zaharrek *Ahobizi* txapa ematen zieten berriei.



Jaso ziren datu guztiak, kuantitatiboak izan edo kualitatiboak izan, lehendabizi erronkaren garapen bera kudeatzeko balio izan zuten, baina era berean ikerketa lana burutzeko ere baliagarri izan ziren. Prozesu osoa ekintza-ikerkuntza paradigmatikaren barruan burutu zen.

5. IKERKETAREN DISEINUA

Datuak jasotzeko bi bide erabili ziren. Bide bat *Ahobizientzat*, eta beste bide bat *Belarriprestentzat*.

Ahobizien kasuan, hizkuntza jokaeraren bilakaera ezagutzeko, hiru “argazki” atera genituen hiru une ezberdinetan. Neurketa bakoitza honako une honetan egin genuen:

- 1) Erronkari heldu aurretik
- 2) Erronkari heldu ondotik
- 3) Erronka bukatu eta handik hiru hilera

Erronkari heldu aurretik eskatu zitzairen *Ahobizi* guztiei zerrenda bat egiteko zehaztuz zein pertsonak zituzten etxean, lagunartean, lantokian eta kalean euskaraz ulertzen zutenak. Pertsona horien hizkuntza gaitasunaz eta pertsona horiekiko hizkuntza jokaeraz ere galdetu zitzairen.

Erronkari heldu ondotik, norberak egindako zerrenda berriz erakutsi zitzairen eskatuz esateko erronka astearen zehar haiekiko zein hizkuntza jokaera izana zuten. Datu honek aukera ematen zuen erronkaren betetze maila jasotzeko.

Hirugarren galdetegia erronka bukatu eta hiru hilera egin genuen. Berriz ere galdetu zitzairen pertsona jakinekiko hizkuntza jokaeraren nolakoaz. Datu horrek aukera ematen zuen ikusteko esku hartzeak ekarritako aldaketek gerora ere irauten zuten eta zein neurritan irauten zuten.

Lehenengo eta bigarren galdetegia aurrez aurre bete zituzten *Ahobiziek*, zeren erronka txanda bakoitzeko *Ahobizi* guztiak biltzen baikenituen erronka heldu aurretik eta ondotik ere. Hirugarren galdetegiaren datuak, ordea, telefonozko elkarrizketen bidez jaso genituen. Kopuru handiak ikusita eta prozeduraren zailtasunaz ohartuta (galdetegi bakoitza pertsonalizatu behar baitzen, *Ahobizi* bakoitzaren solaskide zerrenda erantsiz) erabaki genuen *Ahobizi* guztien datuak jaso beharrean, zoriz aukeratutako lagin esanguratsu batena baizik ez genuela jasoko.

Belarripresten kasuan, hiru galdetegiren ordezkari galdetegi baino ez genituen erabili. Lehenengoa esku hartze osoa bukatzean, eta bigarrena esku hartzea bukatu eta handik hiru hilera. Emailaz guztiei bidalitako galdetegiak izan ziren.

Datu kuantitatibo hauez gain, hainbat datu kualitatibo ere jaso ahal izan genituen. *Ahobiziek* koaderno bat bete zuten erronka bukatutakoan, honako lau galdera hauei erantzunez:



- 1) Zein sentrazio orokorra utzi dizu erronka aste honetan bizi izandako esperientziak?
- 2) Zein izan da zailtasunik edo oztoporik handiena?
- 3) Zein izan da ustekaberik aipagarriena?
- 4) Berriz halako bati heltzeko gogorik?

Belarriprestek ere galdetegietan galdera ireki bat zuten bukaera aldean beren iritziak eta balorazioak emateko. Haietako gehien-gehienek utzi zuten beren iritziaren berri.

6. EMAITZAK

6.1. Ahobizien ikuspegitik

Ahobiziei dagozkien datuak emateko, zoriz aukeratutako lagin esanguratsu bat erabiliko dugu. Zehazki, 104 lagun izan ziren aukeratuak 401 *Ahobizi* balidatu guztietatik¹, unibertso osoaren %25 hain zuzen ere.

Laginaren ezaugarria nagusiak

Laginaren ezaugarria nagusiak honako datu hauen inguruan biltzen dira:

Emakumeen kopurua nagusitu egiten da *Ahobizi* izandakoen artean, %66,3 hain zuzen ere. Gizonezkoen kopurua %33,7ra iristen da.

Adinari dagokionez, bi adin-tarte nagusitzen dira: 31-45 urte bitartekoek laginaren %37,5 osatzen dute, eta 46-60 urte bitartekoek ere %37,5 zatia ordezkatzten dute. Pixka bat beherago agertzen dira 16-30 urte bitartekoak, laginaren %23,1ko proportzioarekin, eta azkenik oso kide gutxi agertzen dira 61 urtetik gorako kategorian: lagin osoaren %1,9 besterik ez.

Etzeko kideekin izaniko aurrez aurreko harremanak dira *Ahobiziek* gehien aipatu dituztenak, harreman guztien %31,1 hain zuzen ere. Bigarren eremurik aipatuena, lagunaren arteko harremanarena da: %28,1. Hirugarren tokian lankideekiko harremanak ageri dira: %21,5. Eta azkeneko tokian kaleko ezagunekiko harremanak aipatzen dituzte: %19,5.

Solaskideekiko harremana intentsu samarra izan da erronka astean zehar. Hala, %42,7k dio egunero jardun duela aipaturiko solaskideekin, %21,3k 3-4 egunez, eta %36k 1-2 egunez.

Ahobizien %96,2k dio euskaraz ongi ulertzen duela, eta %3,8k nahiko ongi. Bestalde, euskaraz mintzatzeko gaitasunari dagokionez, %86,5k dio ongi hitz egiten duela, eta %13,5ek nahiko ongi.

¹ *Ahobizi* balidatuak dira erronka-astearen aurreko eta ondorengo aurrez aurreko saioetara etorritako *Ahobiziak*. Badira, izan, izena eman arren, aurreko saiora etorri ez den *Ahobizirik*, eta era berean badira aurreko saiora etorri arren bigarrenera agertu ez den *Ahobizirik*. Halakoei buruz datu guztiak ez ditugunez gero, ez ditugu "balidatuak" kontsideratzen.



Ahobiziek aukeratutako solaskideei dagokionez, %74,4k ongi ulertzen du euskaraz, %15,8k nahiko ongi, eta %9,8k zerbait. Eta solaskide horiek euskaraz mintzatzeko gaitasuna gogoan hartuz gero, %63 ongi mintzo da euskaraz, %17,4 nahiko ongi, %15,9 zerbait, eta %3,6 batere ez.

Datu hauen argitan, honako soslai honetara bil daiteke Lasarte-Oriako “Irten armairutik!” kanpainan aritu den *Ahobizia*: emakumezkoa, 40 urteren bueltakoa, euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko gaitasun ona duena, erronka bereziki etxekoekin eta lagunekin gauzatu duena, eta oro har euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko gaitasun ona edo nahiko ona zuten kideak aukeratu dituen erronkari aurre egiteko.

Hizkuntza bilakaera orokorra

Ondoko datuek adierazten dute zein bilakaera eman den euskarazko jokaeran neurketarik neurketa. Hala, erronkari heldu aurreko egoeran (lehenengo neurketan alegia) euskararen erabilera aipaturiko harremanetan %62,4koa zen, hau da: euskaraz egiteko joera bazegoen, baina joera hori ahula edo txikia zen. *Ahobizi* gisa astebetetz aritu ondoren, euskararen erabileraren erregistroa %83,8koa zen, aurrekoa baino 21,4 puntu handiagoa. Beraz, euskaraz egiteko joera bizitu, areagotu eta argi nabarmendu zen. Esku hartzea bukatu eta handik hiru hilera egindako hirugarren eta azken neurketak erakutsi zuen erronkari esker lorturiko aurrerapenak ez zuela atzera egin, eta kopuru antzekoetan irauten zuela: %81,3.

Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
62,4	83,8	81,3	21,4	-2,6	18,8

Oharra: datuak ehunekotan daude emanda

Erabilera 1: Erronka asteari heldu aurretik emandako datu aitortua euskarazko erabilerari buruz, pertsona jakin batzuekin.


Erabilera 2: Erronka astea bukatu berritan emandako datu aitortua euskarazko erabilerari buruz, pertsona jakin batzuekin.

Erabilera 3: Erronka amaitu eta hiru hilabetera emandako datu aitortua euskarazko erabilerari buruz, pertsona jakin batzuekin.

Aldea 1: Erabilera 2 - erabilera 1

Aldea 2: Erabilera 3 - erabilera 2

Aldea 3: Erabilera 3 - erabilera 1



Euskararen erabilera emandako aurrerapen hau guztia handia ala txikia den baloratzeko, kontuan har daiteke zein tarte zegoen hasieran euskararen erabilera hobetzeko eta tarte horrekiko benetan zenbat aurreratu den esku hartzearen garaian eta esku hartzea bukatu eta hiru hilera ere. Horren arabera, hurrengo taulan ikus daitekeenez, euskararen erabilera hobe zitekeenaren erdia baino pixka bat gehixeago (%56,9) hobetu edo aurreratu da erronkaren eragin zuzenaren ondorioz, eta proportzio horri funtsean eutsi zaiola (%50) esku hartzea bukatu eta handik hiru hilera egindako neurketan ere. Beraz, aldaketa handia eman da eta aldaketa hori iraunkorra izan da denboran zehar.

Hobetzeko tarte hasieran (erabilera1)	Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (erabilera2)	Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (erabilera3)
37,6	56,9	50,0

Oharra: datuak ehunekotan

Aldaketa horren isla da nola handitu diren euskaraz beti edo ia beti egiten duten bikoteen kopurua². Bikote hauek dira denetan euskaraz egiteko ohitura hobekien adierazten dutenak, nolabaiteko hizkuntza jokaera finkatua eta egonkorra. Bada, kategoria honetako bikoteek %43,1 ordezkatzten zuten erronkari heldu aurretik, bikote guztien erdia baino pixka bat gutxiago, baina esku hartzearen eraginez %68ra igo ziren bigarren neurketan, eta proportzio antzekoari eutsi diote hirugarren neurketan ere (%64,8)

Bikoteen proportzioak (ehunekotan) neurketa bakoitzean, euskararen erabilera araberak

	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
la beti	43,1	68,0	64,8	24,8	-3,2	21,6
Askotan	17,0	19,3	20,9	2,3	1,7	4,0
Batzuetan	23,9	9,0	7,5	-14,9	-1,5	-16,4
la inoiz ez	15,9	3,7	6,7	-12,2	3,0	-9,2
Guztira	100	100	100			

² Bikotea biko harremanaren pare hartzen dugu. *Ahobizi* bakoitzak aipatu dituen solaskide bakoitza eta harekiko buruz buruko harremana bikotetzat hartu dugu testuinguru honetan. Aipaturiko laginan 1.261 bikoteraren datuak aztertu ditugu.



Hizkuntza bilakaera aldagaika

Hurrengo lau tauletan ikus daitekeenez, ez da antzematen hizkuntza bilakaera berezirik aldagai desberdinak kontuan hartzen ditugunean. Hala, hizkuntza bilakaera antzekoa ikusten dugu emakumezkoen eta gizonezkoen artean, edo adina gogoan hartzen dugunean. Joera antzekoa ere harreman sare guztietan. Ez dugu bilakaera berezirik antzematen *Ahobiziek* euskaraz mintzatzeko gaitasun ona dutenean edo nahiko ona dutenean. Agian, bereizketaren bat aipatzekotan, adinaren aldagaian aipa daiteke joera leun bat, adin multzo gazteenen aldera. Hala, badirudi adin multzoak zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta aldaketa zertxobait altuxeagoa egin duela (bigarren neurketa) eta aldaketa horri hobetu heldu diotela (hirugarren neurketa).

Hizkuntza bilakaera sexuaren arabera

	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
Emakumezkoa	62,6	84,5	81,2	21,9	-3,3	18,6
Gizonezkoa	62,2	82,4	81,4	20,3	-1,0	19,2
Batez beste	62,4	83,8	81,3	21,4	-2,6	18,8

Oharra: datuak ehunekotan daude emanda

Hizkuntza bilakaera adin tarteka

	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
16-30	60,1	84,7	84,7	24,7	0,0	24,7
31-45	59,6	82,5	79,4	22,9	-3,2	19,7
46-60	65,5	84,7	81,7	19,3	-3,0	16,3
61etik aurrera	92,4	92,4	93,9	0,0	1,5	1,5
Batez beste	62,4	83,8	81,3	21,4	-2,6	18,8

Oharra: datuak ehunekotan daude emanda

Hizkuntza bilakaera eremuka

	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
Lagunak	60,3	84,3	81,2	24,0	-3,1	20,9
Etxeakoak	64,7	85,4	82,0	20,7	-3,4	17,3
Lanekoak	67,9	85,7	85,7	17,8	0	17,8
Kaleko ezagunak	56,0	78,6	75,3	22,6	-3,3	19,4
Batez beste	62,4	83,8	81,3	21,4	-2,6	18,8

Oharra: datuak ehunekotan daude emanda

Hizkuntza bilakaera *Ahobizien* mintzatzeko gaitasunaren arabera

	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
Ongi	63,6	84,6	82,1	21,0	-2,5	18,5
Nahiko ongi	55,2	78,7	76,1	23,6	-2,7	20,9
Zerbait	0	0	0	0	0	0
Batere ez	0	0	0	0	0	0
Batez beste	62,4	83,8	81,3	21,4	-2,6	18,8

Oharra: datuak ehunekotan daude emanda



6.2. Belarripresten ikuspegitik

Belarripresten kasuan, ez dugu laginik osatu, eta bai, ordea, unibertso osoa erabili dugu. Guztira, 1.927 *Belarripresti* bidali genien galdetegia emailaz, eta horietatik 829 pertsonak erantzun zuten lehenengo neurketan eta 562 pertsonak bigarren³.

Belarriprest multzoaren ezaugarri nagusiak

Multzo honetan ere emakumezkoen kopurua nabarmen altuagoa da gizonezkoena baino. Emakumezkoak %69 badira, gizonezkoak %31 dira.

31-45 urte bitarteko multzoak ordezkutzen du *Belarriprest* guztien %43,7, eta ondoren 46-60 urte bitarteko multzoak %31,6 tartea hartzen du. 16-30 urte bitarteko gaztetxoenen tartea %20,2ra jaisten da. Datu honek badu esanahi berezia, zeren adieraziko bailuke erronkak ez duela nahi adinako erakargarritasunik izan euskaraz ulertzeko ulermen orokortuen duen –eta hortaz *Belarriprest* izateko baldintzarik hoberena duten- adinakoen artean (hots, 16-30 urte bitartekoen artean).

Belarriprest guztien %86,4k aitortzen du euskaraz ongi ulertzen duela, %9,7k nahiko ongi, eta %4k zerbait ulertzen duela. Euskaraz mintzatzeko gaitasunari dagokionez, %77,2k dio ongi hitz egiten duela, %14,4k nahiko ongi, %7,5k zerbait eta %1ek batere ez. *Belarripresten* eta *Ahobizien* hizkuntza gaitasunaren datuak alderatuz gero, ikusten dugu oro har oso hizkuntza egoera antzekoa erakusten dutela batzuek eta besteek⁴.

Hizkuntza jokaera

Hurrengo taulan ikusten da, nola erronka aurreko egoerarekin alderatuta era ikusgarrian handitu den *Belarriprestei* erronkan zehar euskaraz hitz egiten zien jendearen kopurua. Aurrerapen hori eremu guztietan eman da (lagunartean, etxean, lanean eta bestelakoetan) eta kasu gehienetan gainera (tartea doa %64,9tik %77,4ra). Beraz, badirudi *Belarriprest* txaparen identifikazioak deia-efektua argia izan duela, eta harroaldi handi samarra gertatu dela. Ordea, badirudi harroaldia nabarmen apaldu dela bigarren neurketan (esku hartzea bukatu eta handik hiru hilera egindakoan), nahiz eta orotara gelditu den irabazia esanguratsutzat jo daitekeen. Ikusten denez, jaitsierarik txikiena %12,2 puntukoa izan da eta handiena %46,7koa. Hala ere, finkatuta gelditu den aldaketa (*Belarriprestei* erronka aurretik baino jende gehiagok euskaraz egitea) kasurik baxuenean %27,8koa izan da (etxekoan eremuan) eta kasurik altuenean %52,7koa (herriko ezagunen eremuan).

³ Egia esan, 850 pertsonak erantzun zuten lehenengoan eta 562k bigarrenean. Baina datuen baieztapena egin ondoren, 21 pertsonen datuak lehenengoan eta 2 pertsonenak bigarren³ bertan behera utzi genituen, zeren datuek ez baitzetozen bat eskatutako baldintzekin. Izan ere, *Belarriprest* izateko ezinbestez euskaraz ulertu behar zuten pertsonak, zerbait bederen, baina hainbat galdetegitan, akatsen ondorioz seguru asko, hainbat pertsonak zioten ez zutela “batere ez” euskaraz ulertzen. Galdetegi horiek baztertu egin genituen.

⁴ Gogoan hartu behar da astebetez Ahobizi aritutakoak gainerako asteetan *Belarriprest* gisa aritu zirela, ekimenaren diseinuak hala ezarrita. Beraz, *Belarriprest* datu hauetan sartuta daude Ahobizi ari izan zirenak ere.



Belarriprestei euskaraz gehiago egitea erronka aurretik baino⁵

	Lehenengo neurketan	Bigarren neurketan	Aldea
Lagunak	74,2	34,6	39,6
Etxekoak	74,5	27,8	46,7
Lankideak	77,4	40,1	37,3
Herriko ezagunak	64,9	52,7	12,2
Herriko ezezagunak	66,9	43,2	23,7

Oharra: datuak ehunekotan daude emanda

Belarriprestek izan duten hizkuntza jokaera haiei euskaraz hitz egiterakoan argi ikusten da hurrengo taulan. Gehienek euskaraz erantzuteko joera nabarmena izan dute haiei norbaitek euskaraz egiterakoan. %75,8k dio hala egin duela. Eta beste %18k ere joera bera izan du, hain era nabarmenean ez izan arren. Hortaz, hizkuntza simetriarako joera berretsi da berriro ere. Kontuan harturik *Belarriprest* gehienek bazutela euskaraz aritzeko gaitasun ona edo nahiko ona, ulertzekoa da hizkuntza simetriara jotzea norbaitek haiei euskaraz aritzerakoan, simetria hori baita elebitako elkarrizketek sortzen duten disonantzia (deserosotasuna, atsekabea, urduritasuna...) apaltzeko biderik naturalena. Beraz, *Belarriprestek* definizioz euskaraz aritzea ezinbestekoa ez bazuten ere, jarrera egokitzailera erakutsi dute eta hartara moldatu dira egoerak hala eskatzen zuenean.

Belarriprestek euskaraz erantzuteko joera, erronkan zehar

	Kopurua	%
Euskararako joera, nabarmen	628	75,8
Euskararako joera, zerbait	149	18,0
Erdararako joera, zerbait	40	4,8
Erdararako joera, nabarmen	12	1,4
Guztira	829	100

⁵ Lehenengo neurketan euskaraz ohi baino gehiago egiteak bi kategorien bidez neurtzen zen: askoz gehiago eta zerbait gehiago. Bigarrenean, ordea, hiru kategorien bidez neurtzen zen: askoz gehiago, zerbait gehiago eta pixka bat gehiago. Taula honetan datuak ageri dira kategorio guztien batura eginda, aurrerapenaren irudi orokorra emateko.